



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Ingurumen eta Hirigintza

Saila

Departamento de Medio Ambiente
y Urbanismo

Natura Ondarearen Zerbitzua

Servicio de Patrimonio Natural

ALDEZ AURREKO KONTSULTA, SAI ARREEK, OTSOEK ETA INTERESEKO BESTE ESPEZIE BASATI BATZUEK ETXEKO ABEREI ERAGINDAKO KALTEENGATIKO KALTE-ORDAINAK ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA

Bat etorriz Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetu nahian, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatuko zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauen gainean:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) Xedapenaren helburuak,
- d) Egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)
- e) Xedapena zeini zuzenduta dagoen.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, sai arreek, otsoek eta intereseko beste basa-espezie batzuek etxeiko abereei eragindako kalteengatiko kalte-ordainak arautzeko egungo araugintza esparrua aldatzeko xedea duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde, toki erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2023ko maiatzaren 31era arte (barne), aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.



AURREKARIAK	<p>Diputatuen Kontseiluaren 611/2008 FORU DEKRETUA, ekainaren 10ekoa, onspena ematen diena otsoen erasoek etxeko abereei kalteak eragin izanagatik, abeltzaintza ustiategiaren titularrentzako kalte ordainak izapidetzeko oinarri arauak.</p> <p>Diputatuen Kontseiluaren 90/2008 FORU DEKRETUA, urriaren 14koa, onspena ematen diona Arabako Lurralde Historikoan sai arreek aziendei egindako kalteengatik ordainak xedatzen dituen arautegiari.</p>
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	<p>Gure Lurralde Historikoan, abeltzaintza, oro har, eta abeltzaintza estentsiboa edo erdiestentsiboa, bereziki, mantendu beharreko jarduera ekonomiko bat da, gizartean, ekonomian, kulturean eta ingurumenean duen garrantziagatik, batez ere abeltzaintza sektorearen baldintza kaltegarriez eta egiturazko problematikaz jabetuta.</p> <p>Egiaztatuta dago abeltzaintzari eragin egiten diola sai arreakin eta otso iberiarrarekin batera bititzeak, eta kalteak eragiten dituela.</p> <p>Aldi berean, sai arrea (<i>Gyps fulvus</i>) interes bereziko espezieztat jo zuen Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak; otsoa (<i>Canis lupus</i>), berriz, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan jasota dago, eta interes berezikotzat deklaratu da (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 2ko Agindua). Gainera, Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan sartuta dago (TED/980/2021 Agindua, irailaren 20koa).</p> <p>Araudi honen helburua da intereseko espezieek etxeko aziendari eragindako kalteak konpentsatzea, kalte-ordainak emanez.</p>
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<p>Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legeak 67.2 artikuluan adierazten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek basa espezieen kontserbazioaren alde egingo duten jarduera zenbait jarraibidetan oinarrituko da, bizikidetzaren sustatuz, eta, betiere, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartutako espezieen kalte eta arazo</p>



	<p>sozioekonomikoak prebenitzeko, minimizatzeko edo konpentsatzeko beharrezkoak diren praktikak hartu eta neurriak aplikatu ondoren.</p> <p>Era berean, nekazaritza eta basogintza sektoreetako estatu laguntzei aplikatzen diren Europar Batasunaren zuzentarauak (2014/C 204/01) barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituzte babestutako animaliek eragindako kalteak konpentsatzeko laguntzak..</p> <p>Sai arreek eta otsoek eragindako kalteen ordaina arautzen duten ekainaren 10eko 61/2008 eta urriaren 14ko 90/2008 Foru Dekretuak indarrean egon zirenetik igarotako denboran metatutako esperientziaren ondorioz, komeni da horiek aldatzea, baremoak eguneratzea eta biak bateratzea; izan ere, prozedura ia berdina erabiltzen da espedienteak izapidetzeko.</p> <p>Gaur egun, bi espezieen kalteen kuantifikazioa aipatutako Foru Dekretuen eranskinetan jasotako taulek arautzen dute. Bi kasuetan diru esleipen berdinak dira, eta horrek indartu egiten du bateratzeko eta kategoriak eta baremoak eguneratzeko, egokitzeko eta sinplifikatzeko beharra.</p> <p>Azkenik, badira este basa espezie batzuk, salbuespen gisa, urte hauetan zehar noizbehinkako kalteak eragin dituztenak, eta kasu batzuetan kalte asko eragin dituztenak, baina ezin izan direnak konpentsatu araudian jasota ez daudelako, eta foru dekretuan apartatu berri bat sartuta arazo hori konpondu nahi da.</p>
HELBURUAK	arautzea Sai arreak (<i>Gyps fulvus</i>), otso iberiarrak (<i>Canis lupus signatus</i>) eta ehizarako ez diren beste espezie basati batzuek Arabako Lurralde Historikoan etxeko aziendari eragindako kalteen kalte ordaina, kalkulatzeko kontuan hartuta sortzen ari den kaltea eta lortu gabeko irabazia, baita lotutako lan kostuak eta immaterialak ere.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Uste da proposaturiko irtenbidea egokiena dela aurreikusitako xedeak erdiesteko.
XEDAPENA ZEINI ZUZENDUTA DAGOEN	Ardi, ahuntz, zaldi eta behi azienden espezieen abeltzaintza ustiatzearen titularrak.